

BIDANIA-GOIAZKO XXVII. KULTUR ASTEA 2016

**IRAILAK 17
LARUNBATA**



Argazki lehiaketarako **argazkiak ateratzeko saioa**

- Ordua: 16:00etan
- Lekua: Bidaniko frontoian

Bertan gaia eman eta ordu eta erdiko denbora utziko da argazkiak ateratzeko
Inskripzioa: 5 €

**IRAILAK 20
ASTEARTEA**

Barazki ekologikoen kooperatibaren aurkezpena

- Ordua: 21:00etan
- Lekua: Udaletxeko pleno aretoan



**IRAILAK 21
ASTEAZKENA**



Gerra Zibileko dokumentuen azalpena. Azken asteetan Bidania-Goiazko eta inguruko udal artxiboak aztertzen aritu den **Karlos Almorzaren** eskutik

- Ordua: 21:00etan
- Lekua: Udaletxeko pleno aretoan

**IRAILAK 22
OSTEGUNA**

Oasis Raid proba solidarioan parte hartu zuten Ander Malbadi eta Ander Dorransoro albizturdarren hitzaldia bertako esperientzi eta abenturak kontatuz

- Ordua: 21:00etan
- Lekua: Udaletxeko pleno aretoan



IRAILAK 23 OSTIRALA



Aurreko larunbatean ateratako **argazkien erakusketa eta sariak banatzea**

- Ordua: 19:00etan
- Lekua: Goiazko frontoian
- Sariak:
 - ✓ 12 urtetik beherakoentzat sari bat
 - ✓ 13 urtetik 17 urte bitarte dituztenentzat sari bat
 - ✓ 18 urtetik gorakoentzat sari bat

Ondoren, **edari, pintxo eta postreak** egongo dira
(Herritarroi pintxo edo postre batzuk ekartzera gonbidatzen zaituztegu)

IRAILAK 24 LARUNBATA

Haurrentzako ekintzak


- Ordua: 15:30etan
- Lekua: Bidaniko frontoian
- Adin tarteak eta ekintzak:
 - ✓ 6 urtetik gorakoek mapa osatu beharko dute.
Bidea aldapatsua izango da eta guraso bakoitzak ikusi beharko du bere seme-alaben gaitasuna. Motxila eta kantinplora ekarri beharko dira.
Gurasoek ere parte hartzeko aukera daukate.
 - ✓ 6 urtetik beherakoak kale bueltan ibiliko dira jolas ezberdinak egiten.



Ondoren, **txokolatea** egongo da

Eguraldi txarra bada, film bat ikusteko aukera izango da Balio Anitzeko gelan

IRAILAK 25 IGANDEA



Goiz guztian zehar **azoka** Goiazko plazan

- Produktu ezberdinen erakusketa eta salmenta
- Argazki lehiaketako argazkien erakusketa
- Talogileak, sagardoa tolaareekin egiten, trikitilariak...
- Sardinak sagardo eta txakolinaz lagundurik